

## ESKOLA SISTEMAK

Euskadin eta  
Nafarroan  
Frantzian


### Euskadin eta Nafarroan

Hezkuntza politika Hezkuntza Ministerioaren ardurapean da. Ardura hori 17 Autonomia Erkidegoetako (hauen artean Euskadi eta Nafarroa) gobernuekin partekatzen du. Derrigorrezko hezkuntza 6 urtetan hasi eta 16tan bukatzen da.

LOE (Ley Orgánica de Educación) legeak zuzentzen duen sistema honela zatitua dago:

- Haur hezkuntza: "educación infantil" (0-3 eta 3-6 urte).
- Lehen hezkuntza: "educación primaria" (6-12 urte).
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH): "educación secundaria obligatoria" (12-16 urte). Derrigorrezko hezkuntzaren amaieran ikasleek "Derrigorrezko. Bigarren Hezkuntzako Gradua" (graduado en educación secundaria obligatoria) eskuratzen dute.
- Bigarren hezkuntzaren amaieran "batxillerra" (Baxoa) eskuratzen dute (sailak: arteak, zientziak eta teknologiak, gizatasuna eta gizarte zientziak) edo maila erdiko lanbide heziketa (16-18 urte).
- Goi mailako irakaskuntza. "Batxillerra" -ren ostean unibertsitatera joan nahi duten ikasleek "selektibitatea" deritzon proba multzoa gainditu behar dute. Ikasleek maila goreneko lanbide heziketan segitzea hauta dezakete (grado superior).

## EUSKADIKO ETA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMA LE SYSTÈME D'ÉDUCATION EN EUSKADI ET EN NAVARRE



## ESKOLA SISTEMAK

Euskadin eta Nafarroan

Frantzian

### Frantzian

Frantzian hezkuntza arloa Hezkuntza Ministerioaren eskumena da. Ministerioaren tokiko ordezkariak (Akademiak) gobernuak erabakitako hezkuntza politika gauzatzen dute. Akademiak tokiko testuingurua kontuan hartzen dute eta bertako aginteekin (herriak - udalak- lehen mailako eskolentzat, Departamenduak kolegioentzat, eta Eskualdeak lizeoentzat) lankidetzan dihardute. Akademia ikuskaritzak Departamendu baten mailan honako arloak kudeatzen ditu: eskola antolaketa, langileak (bereziki lehen mailakoak), eskola bitzita, azterketa eta konkurtsoak, eta abar.

Irakaskuntza nahitaezkoa da 6 eta 16 urte artean (baliteke 2019ko eskola sartzeko irakaskuntza derrigorrezkoa bilakatzea 3 urtetik aurrera, Emmanuel Macron-ek Ama-eskolen Jardunaldietan adierazi duenez).

Frantses hezkuntza sistema honela zatitua dago:

- Lehen mailako irakaskuntza: ama-eskola (2-6 urte) eta lehen maila (6-11 urte)
- Bigarren mailako irakaskuntza: bigarren mailako irakaskuntza kolegioetan egiten da eta maila horren bukaeran ikasleek "Brebeta" (Brevet des Collèges) diploma pasatzen dute. Kolegioaren ondotik, ikasleek lizeora joatea hauta dezakete 3 urtez, "Baxoa" pasatzeko: orokorra zein teknologikoa. Bestela lizeo profesional batera joan daitezke eta amaieran Lanbide Gaitasun Agiria (LGA) (Certificat d'Aptitudes Professionnelles CAP) titulua pasa.
- Goi mailako irakaskuntza: behin Baxoa eskuratu-eta, ikasleek unibertsitateko ziklo bat segi dezakete: Lizentzia (Baxoa+3 urte), masterra (Baxoa+5) edo doktoretza (Baxoa+8) , edo diploma berezituak (osasun alorreko lanbideak adibidez). "Eskola Handiek" (Grande Ecoles) Baxoa+5 mailako formakuntzak eta diplomak eskaintzen dituzte. Hauetara Baxoaren ostean zuzenean sar daiteke edo bestela bi urteko prestakuntza egin eta konkurtso bat pasa. Bestela, ikasleek apendizgoa aukera dezakete.

